

Emakumeak, gizonak eta berdintasuna

Sekuentziaren helburuak:

Sekuentzia honetan zehar egingo dituzun ariketetan gai hauek landuko dituzu:

- -Zatikiak nola idazten diren euskaraz.
- -Ehunekoak edo portzentajeak nola idatzen diren euskaraz.
- -Gizon eta emakumeen arteko berdintasun-egoera zertan den azaltzeko balio diguten hitzak ikasiko dituzu, lehenbizi, gaztelaniazko adierarekin lotuta eta ondoren, testuinguruari erreparatuta.
- -Gehien hitzaren adiera bat ikasiko duzu, gaztelaniazko La mayoría de moldearen parekoa. Berau erabiltzeko, esaldi batzuk itzuli beharko dituzu. Testua behar bezala ulertu duzun jakiteko, esaldi batzuk osatuko dituzu, galdera batzuei erantzungo diezu eta esaldi batzuk EGIA ala GEZURRA diren esango duzu.
- -Azkenik, gaiaren inguruan duzun iritzia emateko bi proposamen aurkituko dituzu, bata idatziz eta bestea ahoz egiteko modukoa.

Irakurri aurretik

Irakurriko duzun testuak izenburu hau du: *Emakumeak, gizonak eta berdintasuna: Dirudiena eta errealitatea ez datoz bat.*

Komenta ezazu ikaskide batekin edo, besterik gabe, burura datozkizun ideiak zure koadernoan jaso:

- Zure iritziz, asko aldatu al da emakume eta gizonen ematen duten denbora etxeko lanetan eta zaintza-lanetan?
- Lehen baino alde edo tarte handiagoa al dago orain gizon eta emakumeen artean ala igualtsua da?

Adibidez: *Nik uste dut asko aldatu dela egoera eta gaur egun gizonen gehiago laguntzen dutela etxean. Hala ere, asko dago egiteko.*

Zenbakiei buruz hizketan

Hurrengo zatikiei begiratu bat eman:

Nola esaten dira zatiki hauek?

1/4	hiru laurden
3/4	laurdena
1/3	herena
1/2	erdia

Zenbakiei buruz hizketan II

Eta nola esaten ditugu portzentaje hauek? Idatz itzazu (hizketan) euskaraz:

% 21,5 (1)	Ehuneko hogeita bost
% 70 (2)	Ehuneko hogeita bat koma bost
% 18 (3)	Ehuneko hemezortzi
% 25 (4)	Ehuneko hirurogeita hamar

Hiztegia

Ondoren, irakurriko duzun testuko hainbat hitz ekarri ditugu hona. Lot itzazu

Euskaraz	Gaztelaniaz/Frantsesez
Gizon eta emakumeen arteko harremana	Relación/Relation
Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna	Repartir/Répartir
Haurren eta adinekoen zaintza	Complemento/Complément
Haurrak eta adinekoak zaindu	Igualdad/Egalité
Zerbait edo norbaiten artean banatu	Cuidar/Garder
Hemendik aurrera, aurrerantzean	Cuidado/Garde
Lanen, arduren banaketa	Horario fijo/Horaire fixe
Norbaiten, zerbaiten arteko aldea	Permiso de paternidad/ Le congé de paternité
Aitatasun baimena hartu	Reparto/Répartition
Ordutegi finkoa izan	De ahora en adelante/Dorénavant
Geure kasa ibili, aritu	Diferencia/Différence
Zerbaiten osagarri izan	A nuestro aire/A notre manière

Emakumeak, gizonak eta berdintasuna:

Dirudiena eta errealitatea ez datoz bat

Emakume eta gizonen arteko harremanen eredu berria lortu nahi den garai honetan, etxeko lanak eta zaintza-lanak behar bezala bana daitezten lan handia egin beharko dugu aurrerantzean ere. Izan ere, datuek adierazten dutenaren arabera, alde handia baitago gizonak eta emakumeak egiten dituzten lanen artean.



Segidan, lanen banaketari buruzko hainbat punturen gaineko informazioa irakurri ahal izango duzu.

Ematen duena eta benetan gertatzen dena

Badirudi gero eta emakume eta gizon gehiagok banatzen dituztela etxeko lanak, baina, errealitatea hau da:

- Euskal Autonomi Erkidegoan emakumeak etxeko lanen % 70 baino gehiago egiten dute.
- EAEn, gizonak egunean, batez beste, 1,5 ordu eskaintzen dizkiete etxeko lanei, emakumezkoak, berriz, 4,3 ordu.
- Langabezian daudenean, gizonak 2 ordu ematen dituzte etxeko lanak egiten, eta emakumeak 4 ordu eta 31 minutu.

Ematen du gaur egun emakumeak eta gizonak denbora berdintsua hartzen dutela umeak eta adinekoak zaintzeko. Badirudi, baita ere, gazteek nekez hartzen dutela parte zaintzan, baina errealitatea hau da:

- Mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintzaile gehienak, % 84, emakumezkoak dira.
- Bizkaian, adibidez, aiten % 2,9k bakarrik eskatu zuten aitatasun-baimena 2007. urtean.
- Neska-mutilen parte hartzea ezberdina da. Mutilen % 6,5ek zaintza-lanetan parte hartzen du. Nesketan, berriz, % 21,5 da portzentajea.

Antza denez, etxean lan egiteak denbora libre gehiago izatea dakar, geure kasa antolatzen garelako eta ez daukagulako ordutegi finkorik, baina errealitatea hau da:

- Gizonezkoak egunean 5,22 orduz egiten dute lan batez beste (produkzioan zein etxeko lanetan eta zaintzan). Emakumeak, aldiz, 35 minutu gehiago egiten dute: batez beste, 5,57 ordu. Urtean, emakumeak bi ordu gehiago egiten dute lan. Bizitza osoan, zortzi urte liriateke.

Dirudienek, emakumeak gizonezkoen baldintza berdinetan sartzeko lan-merkatuan, baina, errealitatea hau da:

- Emakumeak egiten duten lana gizonen lanaren “osagarritzat” jotzen da oraindik, eta horregatik gutxiago ordaintzen diete. Horrela, EAEn, emakumeen batez besteko soldata gizonezkoena baino % 18 txikiagoa da.
- “Familia-zamak” oraindik ere lana lortzeko eta aurrera egiteko oztopo dira.
- EAEn, emakumeen % 25ek lanaldi partzalean dihardu. Gizonen % 3 bakarrik ari da lanaldi partzalean.

Datuen iturriak:

Denbora Aurrekontuen Inkesta, Eustat
Mendetasunaren Liburu Zuria
Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa
Denbora Aurrekontuen Inkesta, Eustat.

“Denboraren balioa eguneroko bizitzan”, Maria Ángeles Durán. Soziologiako katedraduna eta
Ekonomiako irakaslea CSICen.

EAErako datuak. INE, 2008ko 3. hiruhilekoa.

Segidan dituzun galderak irakurri eta aurki itzazu erantzunak artikuluan.

1.- Etxeko lanei dagokienez, zein da egiazko datua?

- Langabezian daudenean, etxeko lanak egiten 1,5 ordu ematen dituzte gizonezkoek.
- Emakumeek, batez beste, ordu-erdi eskaintzen diete etxeko lanei.
- Etxeko lanen % 70 baino gehiago emakumeek egiten dute.

2.- Zenbat emakume eta zenbat gizon aritzen dira zaintza-lanetan?

- Emakumeak ehuneko laurogeita lau dira. Gizonak, berriz, ehuneko hamasei.
- Emakumeak ehuneko hirurogeita hamalau dira. Gizonak, berriz, ehuneko sei.
- Gehienak emakumezkoak dira, ehuneko hirurogeita hamalau.

3.- Bizitza osoan zenbat denbora ematen dute emakumeek etxean lanean?

- Zortzi urte.
- Bi ordu.
- 5,22 ordu.

4.- Lanaldi partzialari dagokionez, zein da datu zuzena?

- Emakumeen ehuneko hogeita bostek lanaldi osoan dihardu.
- Emakumeen laurdenak dihardu lanaldi partzialean.
- Gizonen ehuneko hiruk uko egiten dio lanaldi partzialean aritzeari.

Egia, gezurra ala ez du esaten?

Irakur itzazu testuaren gaineko hurrengo esaldiok eta aukeratu kasu bakoitzean: EGIA, GEZURRA ala testuak EZ DU ESATEN:

	EGIA	GEZURRA	EZ DU ESATEN
Datuen arabera, EAEn, etxeko lanen ehuneko hogeita hamar gizonek egiten dute.			
EAEn, emakumeen laurdena ari da lanaldi partzialean lanean.			
Zaintza-lanetan aritzen diren gehienak mendekotasun-egoeran daude.			
Emakumeek lau ordutik gora ematen dute egunero etxeko lanak egiten EAEn.			
Zaintza-lanetan, neska eta mutilen parte-hartzea gero eta handiagoa da, azken hamar urteko datuak kontuan hartzen baditugu.			
Emakumeak lan-merkatuan sartu eta aurrera egiteko erraztasun handiagoak eskaintzen dituzte enpresa handiek.			
EAEn, Bizkaian beste probintzietan baino gizon gehiagok eskatzen dute aitatasun-baimena.			

Badirudi ala ematen du?

Badirudi/Ematen du...-(e)la Dirudienez/Antza denez.....-(e)la-rik gabe

Lau egitura hauek erabiltzen ditugu gauza baten inguruan ematen dugun informazioaz seguru ez gaudenean. Normalean, norbaiti entzun diogu edo, besterik gabe, ez dugu esan nahi nork esan duen. Gaztelaniazko parece ser/según parece moldeen parekoak lirateke.

Bada alderik, halere, lauen artean erabiltzeko garaian. Izan ere, lehenengo biekin aditz-formari – (e)la jarri behar diogun bitartean, beste biekin ez dugu jarri behar.

Adibideak:

*Badirudi/ematen du gero eta emakume eta gizon gehiagok banatzen dituztela etxeko lanak.
Antza denez/dirudienez, etxean lan egiteak denbora libre gehiago izatea dakar.*

Berridatz itzazu esaldiok parentesi artean eskaintzen dizugun moldea erabiliz:

1.- Badirudi oso udaberri euritsua izango dugula. (dirudienez)

2.- Antza denez, soldata izoztuko digute aurten ere. (ematen du)

3.- Lanorduetan telefonoz etengabe hizketan aritzea normala dela ematen du. (antza denez)

4.- Dirudienez, murrizketa ugari egingo dituzte osasun-zerbitzuetan. (badirudi)

Ehunekoak

Azalpena

Hona hemen ehunekoak erabiltzeko garaian kontuan hartu behar ditugun arauak:

1.- Ehunekoa digitoz idazten da, % sinboloaren eskuin aldean kopuru zehatza eman ez eta bien artean hutsune bat utziz.

% 6 % 14 % 87 % 7,5 % 21,50

2.- Ehunekoa deklinatzeko, % sinboloaren eskuinean digitoz adierazitako zenbakia deklinatu behar da, kasuan kasuko atzizkia erantsiz, marratxorik gabe.

Adibidea: Enpresaren irabaziak % 7tik % 15era igo badira ere, % 7,3ko etekina atera du bazkideen % 72k.

3.- Ehunekoa mugagabea jokatzen da; aurretik emandako ehuneko kopuru(ar)en osagarri denean izan ezik. Kasu honetan, mugatu singularrean jokatzen da.

Adibideak:

Kontinentearen % 5 izotza da. (eta ez “% 5a”)

Udalak % 35, Foru Aldundiak % 25, eta gainerako % 40a geuk ordainduko dugu.

4.- Ehunekoak singularrean egiten du aditzaren komunztadura.

Adibideak:

Irakasleen arabera, ikasleen % 78k egin ditu lanak garaiz.

Bezeroen % 57,32 pozik dago jasotako zerbitzuarekin.

Sagardotegietako sagarren % 31 kanpotik ekartzen dute.

Gaixoen % 7ri gertatu zaio gorabeheraren bat ospitalean.

5.- Ehunekoa dagokion hitzaren ondoren idatzi behar da % sinboloa.

Adibidea:

Botoen % 24 bereganatu du alderdi horrek.

Eta ez

** % 24 boto bereganatu du alderdi horrek.*

Baina zuzenak dira honelakoak:

Ehunetik (ehunetarik) hogeita lau boto bereganatu ditu alderdi horrek.

% 1,4 igo dira prezioak. (eta ez “% 1,4an”)

[Hutsune bakoitzean aukera egokia zein den hautatu behar duzu.](#)

Euskal Autonomi Erkidegoan emakumeek etxeko lanen _____ baino gehiago egiten dute. Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zaintzaile gehienak, _____, emakumezkoak dira. Bizkaian, adibidez, aiten _____ bakarrik eskatu zuten aitatasun-baimena 2007. urtean. Neska-mutilen parte-hartzea ezberdina da. Mutilen _____ zaintza-lanetan parte hartzen du. Nesketan, berriz, _____ da portzentajea. Horrela, EAEn, emakumeen batez besteko soldata gizezkoena baino _____ txikiagoa da. “Familia-zamak” oraindik ere lana lortzeko eta aurrera egiteko oztopo dira. EAEn, emakumeen _____ lanaldi partzialean dihardu. Gizonen _____ bakarrik ari da lanaldi partzialean.

egiten dute.

Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zaintzaile gehienak, **(2)** , emakumezkoak dira.

Bizkaian, adibidez, aiten **(3)** bakarrik eskatu zuten aitatasun-baimena 2007. urtean.

Neska-mutilen parte-hartzea ezberdina da. Mutilen **(4)** zaintza-lanetan parte hartzen du. Nesketan, berriz, **(5)** da portzentajea.

Horrela, EAEn, emakumeen batez besteko soldata gizonezkoena baino **(6)** txikiagoa da. "Familia-zamak" oraindik ere lana lortzeko eta aurrera egiteko oztopo dira. EAEn, emakumeen **(7)** lanaldi partzialean dihardu.

Gizonen **(8)** bakarrik ari da lanaldi partzialean.

Aukerak

(1)	(3)	(5)	(7)
% 70a	% 2,9k	% 21,5ak	% 25ak
% 70	%2,9ek	% 21,5	%25a
% 70ak	%2,9ak	% 21,5ek	% 25ek
(2)	(4)	(6)	(8)
% 84ak	% 6,5ek	% 18	%3k
% 84k	% 6,5k	%18ak	% 3
% 84	% 6,5ak	% 18a	%3a

Denbora eman

Denbora eman (pasa edo igaro)

Gaztelaniazko “pasar el tiempo” euskaraz esateko, aditz bat baino gehiago dugu aukeran: **eman, igaro, iragan, pasatu**

Agian, euskaldun berrien artean gutxien ezagutzen dena **eman** da. Gogoratu, beraz, denbora euskaraz eman ere egiten dela.

Adibideak:

Opor guztiak leku berean eman ditut. He pasado todas las vacaciones en el mismo sitio:

Bi ordu eman ditugu musean. Hemos pasado dos horas jugando al mus:

[Itzul itzazu hurrengo esaldiok eman aditza erabiliz:](#)

He pasado media hora esperando al autobús.

.....

El banco ha tardado un mes en darnos una respuesta a nuestra consulta.

.....

Los montañeros pasaron toda la noche perdidos en el monte.

.....

Mireia ha pasado toda su vida buscando el amor.

.....

Azken atazak

[Bi egoera dituzu aukeran, bata ahozko lan bat egiteko eta bestea idatzi bat.](#)

Idatzirako proposamena

Euskal Herritik kanpo bizi den lagun batek egiten ari den lan batean lagun diezaiozun eskatu dizu. Txosten bat osatzen ari da aztertzeko hainbat lekutan emakumeek eta gizonek etxeko lanak egiten zenbat denbora ematen duten. EAEn zer gertatzen den jakin nahi duenez, ezagutzen dituzun datuen berri eman eta zure iritzia azaldu.

Ahozko proposamena

Mahainguru bat antolatuko duzue euskaltegian. Gaia: Nork egiten ditu etxeko lanak gure etxeetan? Gaiaren gainean esango zenukeenaz pentsatu eta ideia nagusiak jaso ondoren, presta ezazu zure azalpena eta emango duzun iritzia.